

"Europako gazteria-proiektuen diseinua eta kudeaketa. ERASMUS+GAZTERIA eta EUROPAKO ELKARTASUN KIDEGOA programen berrikuntzak 2021-2027 Europako diru-laguntzen esparruan" on-line ikastaroaren balorazioa

Gazteen Euskal Behatokiak 2022ko formakuntza planeko ikastaro berri bat antolatu du

'Europako gazteria-proiektuen diseinua eta kudeaketa. ERASMUS+GAZTERIA eta EUROPAKO ELKARTASUN KIDEGOA programen berrikuntzak 2021-2027 Europako diru-laguntzen esparruan' on-line ikastaroa antolatu du Gazteen Euskal Behatokiak otsailean. Programaren helburu nagusia izan da jakitea zertan dautzan programak, nork parte har dezakeen eta nola parte har dezakeen.


Ikastaroa **Jorge Sáezek** (Donostiako Eurodesk eta Europe Direct zentroko teknikaria) eman du.

17 lagunek partehartu dute ikastaroan, honako lanbide-profilak dituztenak:

- % 70 gazteen arloko langileak (gazte informazioa, udalak, foru-aldundiak, gazteen elkarteak, gizartean eta hezkuntzan esku hartzen duten taldeak eta beste erakunde batzuk) izan dira.
- Beste % 12, hezkuntza arautuari lotutako lagunak izan dira.
- Azken % 18k beste lan profilak zituzten.

Ikastaroak 15 orduko iraupena izan du, hiru egunetan banatua eta ikasleen batez besteko balorazioak honako hauek izan dira (0tik 10era bitarteko eskalan):

**Ikastaroaren balorazioa
(batez bestekoa, 0tik 10era doan eskalan)**



Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, ikastaroan parte hartu dutenen artean egindako balorazio inkestetako emaitzak oinarri hartuta